

Bihar, piratak Gurean

Haur antzerkia eskainiko dute ▶ 4



«Terrorismoaren apologia» egotzi diete bi tabernariri

TOLOSA ▶ Asteazkenean Madrilgo Auzitegi Nazionalera joan beharko dute Elurra tabernako jabeak

ARGAZKIA ▶ Era guztietako pegatinak zituen argazki bat kendu zien Ertzaintzak «irainengatik» ▶ 5



Haurrak marrazten ikasten, artista sena piztutzeko

BERROBI ▶ Asteartero eta ostegunero biltzen dira herriko 6 urte inguruko 18 haur liburutegian marrazten ikasteko Felix Amiano irakaslearekin. Herriko jaietako kartela haurrek egindakoa izan dadin, horretarako aurretik marrazten erakutsi behar zaiela pentsatu eta hala hasi zen aspaldin Berrobin bizi den

donostiarra. Gaztetxoak oso gustura joaten dira eta asko ikasten ari omen dira berarekin. Zaletasun hori lortzea behintzat du helburu irakasleak. Irakaslearentzat ere horrelako lehen esperientzia izan da. Beste bi hilabete gelditzen zaizkio haurrek barruan duten artista sena piztutzeko. **INIGO TERRADILLOS** ▶ 6

TOLOSA ▶

Tolosako neska futbolariak igoera fasea ari dira jokatzeko; bihar partidu erabakiorra dute


Bost partidu falta zaizkie; finala Realaren aurka jokatzeko dute amets ▶ 2

ZIZURKIL ▶

‘Greban gaude’, gaur III. Antzerkia Astean

Azken emanaldia izango da, Atxulondo kultur etxean ▶ 4

TOLOSA ▶



HITZA

Atletak, Gipuzkoako onenen artean

Pistako II. Kopan oso txukun aritu dira infantilak ▶ 3

LEITZA ▶

Euskarazko filmen azken saioa izango da bihar

‘Txoritxoak’ emango dute bukatzeko ▶ 7

FUTBOLA ▶



Tolosako nesken taldea, Iñaki Mujika entrenatzailea eta Sebas delegatuarekin batera Berazubiko futbol zelaian. MADDI SOROA

Tolosa, igoera fasean

Igoera fasera pasatu ondoren bost partiduren faltan da Tolosa; Realaren aurka finala jokatzeko dute amets jokalariek zein entrenatzaileek

MADDI SOROA

Bosgarren denboraldia du aurtengoa Tolosako eskualde mailako nesken taldeak. Irailean hasi eta gaur arte, gogotsu, animotsu eta indarrez beterik aritu dira jokalariek entrenatzaileak. Instalazio falta, jokalariek gutxiarekin ibiltzearen presioa edota entrenatzailearen joateko egin beharreko kilometroak ez dira nahikoa taldearen grina itzaltzeko.

Aitzitik, partidak aurrera joan ahala, geroz eta motibazio handiagoa erakutsi du taldeak aurrera jarraitzeko. Beraz, talde lan horren emaitza izan da igoera fasera iristeko taldeak erabili duen tresna nagusia.

Guztira hogei eta hamabi talde aritu dira norgehiagokan, zortzi taldez osaturiko lau multzotan, hain zuzen ere. Multzo bakoitzeko lehenengo lau taldeak igoera fasera pasatu dira, gainontzekoek, ordea, kopa jo-

kutzen dihardute oraindik ere. Beraz, igoera fasera pasatu diren taldeen artean aurkitzen da Tolosa.

Iñaki Mujika entrenatzaileetako batek esandakoaren arabera, «nahiko ongi egin genuen denboraldia, baina apur bat kosta zitzaigun laugarren postua lortzea». Hala ere, «igoera fasera pasatzea sekulakoa izan da guztiontzat. Denboraldi hasieran genuen helburua bete dugu eta sailkapen nagu-

siko lehen postuetan gaudela ikusita, oso denboraldi ona egin dugula argi dago» baieztatu du entrenatzaileak.

Lan zaila, baina ez ezinezkoa

Esan bezala, une hauetan igoera fasea jokatzeko dihardu Tolosak, beste hamabost talderekin batera. Hau da, zortzina taldeko bi multzo ari dira nor edo nor. Bi multzo horietatik lehenengo postuetan geratzen diren bi taldeek jokatzeko dute igoera faseko finala eta garaile suertaturiko taldea mailaz igoiko litzateke, nazional mailara hain zuzen ere. Mujikak adierazi bezala «igoera faseko finalean iristea oso zaila da guretzat, baina ez da ezinezkoa». Izan

JOKALARI FALTA

Tolosako jokalariek izatera animatu nahi dituzte neskak, inongo konpromisorik gabe entrenatzailearekin

ere, gogoratu beharra baitago Realak talde berria ateratzen duela aurretik eta Mujikak esan bezala «Gipuzkoako selekzioa osatu du taldeak, oso jokalariek onak ditu eta normala da garaipenak lortzea eta lehenengo postuan egotea».

Une honetan hirugarren postua betetzen du Tolosak dagokion taldean, baina bost partida ditu oraindik jokatzeko. Entrenatzailearen hitzetan, «oso zaila daukagu lehenengo postua lortzea baina ez da ezinezkoa». Tolosako taldeak Intxaurrondoko eta Mutrikuko talde indartsuak ditu aurretik. Hala ere, taldeak ez du inongo momentutan esperantzarik galdu eta azken unerarte garaipena lortzeko duten guztia emango dutela argi dago.

Lehenengo postua lortzeko, ordea, igande honetan jokatu beharreko partida irabazi beharko luke Tolosak. Mujikak adierazitakoaren arabera, «igandeko partida hil ala bizikoa da guretzat». Izan ere, lehenengo postuan dagoen Intxaurdi taldearen aurka jokatzeko du Tolosak. Mujikaren ustetan «Intxaurdiaren aurka irabaziko bagenu aukera asko edukiko genituzke lehenengo postua lortzeko, galduz gero, ordea, agur esango genioke finala jokatzeari». Horregatik, igandeko partida «hil ala bizikoa» izango dela adierazi du Mujikak. Partida 12:30ean izango da Donostiako Mirakruzen. Aurkaria, berriz, Intxaurrondoko Intxaurdi taldea.

Amaitzeko, gogoratu Tolosako taldeak jokalariek behar dituela. Beraz, interesaturik bazaudete, agertu zaitez Berazubira, astelehen, asteazken edo ostiralean, 19:00etatik 20:30era, inongo konpromisorik gabe. Animatu!





**Tolosa
Hiri
Komertziala**

*Larunbata 23,
Berdura plazan*

**XVI. LORE ETA
LANDARE AZOKA**

Berdura plazan larunbatero egoten diren produktore-saltzaileek landutako produktuak. Tratu pertsonalizatua.

TOLOSAREN KULTURA

BANAKETA ENPRESA batek banatzaile bat behar du Andoain eta Billabonan.

LAN-BALDINTZAK :

- Asteazken sei egun. Asteartetik igandera.
- Bi aste lan, bat jai.
- Egunean 3:30 ordu.
- Goizeko 04:30etatik 08:00etara.

Ezinbestekoa da autoa izatea

Apirilaren 25ean, astelehenarekin, deitu telefono honetara 943 30 43 41

ATLETISMO ▶

Tolosa CFko atletak txukun Gipuzkoako onenen arteko lehia

Infantil mailako Elkarteen Arteko Pista Estaliko II. Kopan aritu dira berriki eskolakoak, eta emaitza bikainak lortu



Tolosa CF atletismo eskolako neska-mutilak, Donostiako Belodromoaren inguruan. HITZA

LEIRE MONTES

Infantil mailako Elkarteen Arteko Pista Estaliko II. Kopa jokatu da berriki Donostiako Belodromoan. Tolosa CF eskolako talde handi batek parte hartu du bertan; eta emaitza ezin hobekak lortu ditu, gainera. Tolosaldeko atletak fin aritu dira Gipuzkoako talde indartsuenen aurka: Atletico San Sebastian, Bidasoa eta Eibar, besteak beste.

Eskualdeko mutilek, hiru tal-

detan banatuta, lehenenengo eta hirugarren postuan sailkatzea lortu zuten. Neskak, aldiz, talde bakarrean lehiatu ziren, eta bigarren postuan sailkatu ziren. «Emaitza bikainak dira, inondik inora. Are bikainago, gainera, nesken kasuan, taldea osatzeko arazoak izan baitziztuzten hasiera batean», azaldu dute Tolosa CF atletismo taldeko ordezkariak.

Guztira, bost garaipen lortu zituzten taldeko neska-mutilek: 150 metrotan Xabier Artiedak

irabazi zuen, 18.82 markarekin; 60 metro hesietan Lander Gil izan zen txapelduna; pisuan Alain Otaegi, 11.97 metroarekin, eta Ainara Otamendi, 8.87 metroko jaurtiketarekin; eta 600 metrotako proban, azkenik, Maria Lopezek irabazi zuen, 1.54ko denborarekin.

Beste parte-hartzaile guztiek ere «marka txukunak» egin zituzten. Taldeko arduradunak pozik dira «Tolosaldeko neska-mutilek egindako lan onarekin».

MARKAK ▶

INFANTIL NESKAK

60 metro.
▶ Olatz Artola: 8.92.
150 metro.
▶ Mara Varela: 21.60.
600 metro.
▶ Maria Lopez: 1.54 (1.).
1.000 metro.
▶ Tamara Lozano: 3.29.
60 metro hesiak.
▶ Olatz Aldalur: 11.60.
Altuera.
▶ Irati Larrañaga: 1,10 m.
Luzera.
▶ Sandra Lopez: 4,35 m.
Pisua.
▶ Ainara Otamendi: 8,87 m (1.).

INFANTIL MUTILAK

60 metro.
▶ Iker Epelde: 8.72.
▶ Josu Basagoitia: 9.47.
▶ Josu Murua: 9.68.
150 metro.
▶ Xabier Artieda: 18.82 (1.).
▶ Jeffrey Martin: 21.19.
▶ David Rodriguez: 23.10.
600 metro.
▶ Eneko Tapia: 1.47.
▶ Josu Anta: 1.55.
▶ Xabier Leunda: 1.55.
1.000 metro.
▶ Eneko Garin: 3.08.
▶ Jon Etxaide: 3.16.
▶ Ramon S. Sebastian: 3.19.
60 metro hesiak.
▶ Lander Gil (1.).
▶ Ander Etxabe.
▶ Gorka Sobrino (4.)
Altuera.
▶ Marko Alijostes: 1,43 m.
▶ Mario Bonilla: 1,30 m.
▶ Jonathan Perez: 1,10 m.
Luzera.
▶ Aitor Falcon: 4,31 m.
▶ Mikel Aramendi: 3,61 m.
▶ Patxi Espinosa: 3,47 m.
Pisua.
▶ Alain Otaegi: 11,97 m (1.).
▶ Mikel Aierbe: 11,50 m.
▶ J. A. Ugartemendia: 10,98 m.

AZOKA ▶

Denetarikoa lore eta landareak Berdura Plazan

Gaur, 08:00etan hasita eta 14:00ak arte, Lore eta Landare Azoka Berezia izango da Berdura Plazan. Denetarikoa lore eta landareak ikusteko eta erosteko aukera izango dute bisitariek. Azpiazu hazitegikoak, Etxeto baserrikoak eta Arregi hazitegikoak beren larunbateroko postuan izango dira, jendearen zalantzak argitzeko prest.

ZIKLOTURISMOA ▶

Tolosa eta Errezil arteko ibilbidea, Marraskilorekin

Marraskilo taldekoek irteera egingo dute bihar goizean. Tolosa eta Errezil arteko ibilbidea osatuko dute zikloturistek: Tolosatik irtingo dira, Mandubia igo, Azpeititik pasatu eta Errezilera iritsiko dira. Guztira, 75 kilometro dira. 09:00etan abiatuko dira, elkartearen egoitzaren aurretik (Berazubi auzoa).

TXIRRINDULARITZA ▶

Gaztela-Leongo itzulia korrituko du Josu Agirrek

Josu Agirre txirrindulari tolosarrak (Bidelan-Kiroldi) Gaztela-Leongo Itzulia korrituko du. Profesionalekin batera aritzeko eta bere maila erakusteko aukera izango du Jose Luis de Santosek Espainiako hautatzaileak deituta. Hilaren 27tik maiatzaren 1era izango da lasterketa.

GARAZI LORADENDA
Renigio-enea • Ernio Bidea 1 - behea
ZIZURKIL • Tel.: 943 69 34 08

A/O Grupu CATALANA OCCIDENTE
MOTA GUZIETAKO ASEGURUAK
San Frantzisko, 41 TOLOSA Tel.: 943 69 80 54

Beti nahi *jatetxea*
Garaian garaiko janariak
Arraikietan berezia
© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementeri kalea, 16 • 20400 TOLOSA



argazki
hitza lehiaketa

IRABAZLEAK, igandeko egunkarian argitaratuko ditugu

Argazkiak www.tolosaldeko-hitza.info webgunean ikus ditzakezu

1. SARIA: Afari eder bat 2 lagunentzat Berrobiko Iriarte Jatetxean
2. SARIA: Adunako Zabala sagardotegian 2 lagunentzako afari eder bat
3. SARIA: Mahala baserriko produktu naturalen sorta aparta

ZIZURKIL ▶ KULTURA

‘Greban gaude’ obra
gaur Atxulondon

Lakrikun taldeak III. Antzerki Astearen azken emanaldia eskainiko du 20:00etan



Antzezlan ariko diren hiru garbitzaileak. HITZA

ERRREDAKZIOA

Lakrikun taldeak III. Antzerki Asteo azken emanaldia eskainiko du gaur, 20:00etan, Atxulondo kultur etxean. *Greban gaude* komediak Azpeitiako Euskal Antzerki Topaketako saria jaso du.

Elena, Arantxa eta Jaione garbitzaileen istorioa kontatzen da antzezlanean. Grebara joatea erabakitzen dute, grebaren zergatia hasera batean inork garbi ez badu ere. Hirurak elkartu egingo dira eta solasari ekingo diote. Oso ezberdinak dira beraien artean, emakumezkoen pentsaer eta ikuspegi ezberdinak azalduz.

PERTSONAIK ▶

Elena. Salerosa bat da, gaztelaniaz asko aritzen dena. Usadio zaharreko emakumea da, baina baditu erabat harrituta uzteko moduko irteera eta pentsakerak.

Arantxa. Beti negarrez dago, oso sentibera da. Ez dauka oso garbi zer nahi duen, ez eta zertan datzan bere bizitza ere.

Jaione. Modernoa. Izatez Abokatua da. Teorian asko daki, praktikan gutxi. Jarrera irekiena berak dauka, baina ez da batere errealista.

VILLABONA ▶ KULTURA

‘Igandeetan, piratek jai’ haurrentzako antzerkia bihar Gurean

Markeliñe taldearen eskutik, «proposamen berri honek gure artean eragin duen poza eta lilura» sortzeko helburuarekin



Imajinarioa erruz erabiltzen du Markeliñe taldeak piratei buruzko istorio honetan. HITZA

ERRREDAKZIOA

«Haurrei eta familiei zuzendutako sorkuntza lan bitxia da. Helburua, ikusleen artean proposamen berri honek gure artean eragin duen poza eta lilura sor dezala da. Hori da gure nahia». Lerro horietan laburtzen du Markeliñe taldeak

Igandeetan, piratek jai antzezlanarekin lortu nahi duena ikusle goarengan. Gurea aretoan izango da horretarako aukera, bihar 17:00etatik aurrera.

Markeliñe taldeak oso estilo pertsonala ematen die beren ikusleaz. «Egiteko modu horrek ikusleen aurrean sorkuntza lan orijinalak, imajinarioz beteak eta harrigarriak aurkeztu ditugun talde gisa definitzen gaitu», azaltzen dute antzerki taldekoek.

Gaztetxo batek bere amonarekin duen harremana du abiapuntu *Igandeetan, piratek jai antzezlanak*. «Nire amonak lepoko gorria zuen, eta jolas bat asmatu zuen. *Altxorren uharte* zuen izena, eta liluragarria iruditzen zitzaidan», dio antzezlaneko pertsonaiak. «Amonaren lepokoa kaxatxo batean gorde eta altxor bat balitz bezala ezkutatu behar genuen,

FITXA TEKNIKOA ▶

Gidoia eta zuzendaritza. Markeliñe.

Ikuskizunaren arduraduna. Iñaki Egiluz.

Antzezleak. Itziar Rekalde, Nagore Navarro, Pako Trujillo.

Laguntza teknikoa. Na Gomes.

Jantziak. Sole Carril.

Argi diseinua. Gaizka Rementeria, Aitor Agorria.

Ahotsa. Ane Aseginolaza.

Iraupena. Ordubate.

Ikuslegoa. Sei urtetik gorako umeentzat gomendutako ikuskizuna.


guk imajinatzen genituen piratek aurkitu ez zezaten. Orain, nire logelan pentsatzen dudanean, abenturaz beterik gogoratu dut, itsasoz, itsasontziz eta uhartez beterik».



LOREZAINZA ZERBITZUAK

- Parke, lorategi eta berdegune proiektuak.
- Sorkuntza lanak, mantenimendua, inausketak.
- Udal, etxegile, urbanizazio, jabego pribatu, etab.
- Denboraldiko loreen aukera bikaina.
- Barrurako landareak.
- Kirol zelaien mantenimendua eta lan bereziak.

Illarra Bidea, 4 • 20018 DONOSTIA
Tel.: 943 000811 • Faxa.: 943 310363



hirukide
estakurri
jaskintza
erakundeak
www.hirukide.org
Tfnoa: 943 670 311

Batxilergoa
Bibite guztiak
Eleaniza
Goi mailako Zikloak
Erdi mailako zikloak
Merkataritza
Administrazio kudeaketa



**TOLOSALDEA,
LASKORAIN IKASTOLA,
ZEURE AUKERA.**

Telf.: 943 69 71 22

- Kalitatezko heziketa euskalduna
- Tolosaldeko gazteen Bigarren Hezkuntzarako ikastola.
- Unibertsitateko bide guztiak irekiko dizkizun ikastola.

Batxilergoko eskaintza zabala duelako:
**TEKNOLOGIKOA
NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK**

TOLOSA ► GIZARTEA

JOXEMI SAIZAR

Elurra tabernako bi jabeek Madrilgo Entzutegi Nazionalera joan beharko dute deklaratzera asteazkenean, apirilak 27, Auzipetze Kriminalako Legearen 486 artikulua araberak «terrorismoaren apologia» us-tezko delituaz inputatuta.

Duela aste batzuk ertzainak sartu ziren Elurra tabernan eta paretan zegoen argazki bat eraman zuten «draingarria» zelako haien hitzetan. Argazki horretan tabernan bertan 18 urtez egon den pegatinen panela agertzen zen. Argazkiaren azpialdean beste hiru pegatina zeuden itsatsita.

Panel «historikoa»

Lehenago astean jaso zuten Elurra tabernaren bi nagusiek zita-zioa eta «oso kezkatuta» daude inoiz ez zailako horrelakorik gertatu eta ez zutelako espero. «Pegatinak jartzeko panel hori taberna ireki genue-netik izan dugu hor, jendeak nahi zituen pegatinak jar zit-zan, taberna txukunago edukitze-ko. Ez dugu inoiz kontrolatu jendeak zer jartzen zuen. Denetatik zegoen hor: gai politikoe-kin batera, euskararen alde-koak, kilometroak, Korrika, Lemoizen aurkakoak, beste

«Terrorismoaren apologia» leporatu diete bi tabernariri

Argazki batengatik Madrilera deklaratzera joan beharko dute Elurra tabernakoek

hainbat erreibindikaziotakoak, Inauteri eta beste jaietakoak... Panel historiko bat dela esan daiteke, herri honen historia nolabait jaso duena. Zaharkitua gelditu zenez, argazki bat ateratzea eta bere orde- z jar- tzea pentsatu genuen», adiera- zi diote jabeek HITZARI.

Abokatuak «harrituta»

Abokatuarekin harremanetan jarri eta kasu honek hartu duen bidearekin «harrituta» agertu omen dira «zuzenean Madrilera eraman dutelako eta ez Tolosako Ertzaintzaren ba- sara edo Donostiako epaitegi- ra, normalean egiten duten be- zala; horien kompetentzia ez bada, orduan pasatzen dute Madrilera, baina ez zuzenean, errekurritzeko aukerarik eman gabe». Abokatuak azaldu die- nez, argazkia kentzera joan baino egun batzuk lehenago ertzainek kanpotik ikusi zuten.



Elurra tabernako bi jabeak barraren atzean; «oso kezkatuta» daude tokatu zaien egoera honegatik. J. SAIZAR

Horrelako kasorik ez dela eza- gutu esan die abokatuak, inoiz ez dute tabernari bat Madri- lera deklaratzera eraman bere- z tabernan pegatina batzuk edo argazki bat edukitzeagatik.

Datorren asteazkenean Ma- drilera joan beharko dute Elur- ra tabernako bi arduradunek. «Inoiz ez gara horrelako egoe- ra batean izan. Egun osoa gal- du beharko dugu lanean hara

joateko eta ez dakigu gero zer gertatuko zaigun. Indefentsioa sentitzen dugu. Herriko jende eta langile arruntak izutzea dute helburu», adierazi dute bi tabernariek.



Elkartasunaren ikuskizuna

BELAUNTZA ► Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat ekitaldi antolatu ziren atzokoan. Belauntzan txontxongilo emanaldia eskaini zuten Kultur Etxean. Herriko ume eta guraso asko gerturatu ziren «elkartasuna aldarrikatzea helburu zuen» txontxongilo, argi beltzeko efektu, diapositiba, kutxa eta bestelakoen bidezko ipuin kontaketa- ren *Eman eta gero* ikuskizunaz gozatzeko. Egilea Enkarni Genua izan zen eta bere istorioaren protagonista laguntasunaren garrantziaz ohartur zen eta elkarri lagunduz gero dena posible dela ere ikusi zuen. N. L.



BERROBI ▶ MARRAZKI IKASTAROA



6 urte inguruko gaztetxo ugari ari da marrazkigintza ikastaroan parte hartzen. Gorderik duten artista sena ari dira azaleratzen. I. TERRADILLOS



Felix Amiano da ikastaro honetako arduraduna. Gisa honetako lehen esperientzia da berarentzat. i.r.



Marrazkiak margotzeko ematen dizkie ikastaroko arduradunak txikiei, eta horretarako koloreak elkarrekin nahastuz kolore berriak sortzen erakusten die. IÑIGO TERRADILLOS

Artista sena piztuz

Astearte eta ostegunero biltzen dira Berrobiko Liburutegian herriko 18 gaztetxo marrazten ikasteko helburuarekin

IÑIGO TERRADILLOS

Felix Amiano, donostiarra izatez, duela 10 urtetik Berrobin bizi da. Berak erakusten die herriko haur eta gaztetxoei marrazkigintza.

«Herriko festetako kartelak egiten nituen eta umeek egin-dako marrazki bat sartzea bururatu zitzaidan aurtengo jaie-tarako; orduan, umei marraz-

ten erakusteko ikastaro bat egitea proposatu zidaten eta amaieran bertan parte hartuko zuen gaztetxo baten marrazkia aukeratu zen horrela», dio Amianok ikastaroaren nondik norakoak azaltzeko.

18 gaztetxo ari dira uneotan astearte eta ostegunetan Berrobiko liburutegian marrazki-gintzako ikastaroan parte har-tzen. Oso gustura joaten dira

denak eta asko ari direla ikas-ten diote berrobitar gazteek.

«Ezin zaie gehiegi exijitu oso gazteak baitira, margotzera za-letzea lortu nahi dugu ikastaro honekin», azaltzen du ikastaro-ko arduradunak. Zaletasun bat da Felix Amianorentzat mar-razkigintza. Berarentzat le-hendabiziko aldia izan da ho-rrelako ikastaro baten ardura-dun gisa aritzea eta oso

gustura ari dela dio. «Txikiene-kin ari zarenean beraien nahietara egokitu behar zara: jolastu nahi badute beraiekin jolastu behar duzu, lurrean etzan behar bazara, zuk ere etzan behar duzu...», azaltzen du berrobitarrek ikastaroaren inguruan.

Uda ondoren helduagoak (6-16 urte) hasi ziren ikastaroa-re-kin, baina kasu horretan komi-kigintza landu zuten. Behin hauek amaituta batz besta 6 urte inguruko haurrak hasi zi-ren eta beste bi hilabete gera-tzen zaizkie ikastaroa amaitze-ko. Arkatzak eta kolore guztie-tako margoak erabiliz barnean gorderik duten artista txikia nola atera ari dira ikasten.

IBARRA ▶

Argazkigintza ikastarorako izen-ematea

Ibarrako kultur etxean 2004-05 ikasturterako eskaini di-ren tallerren artean Iñigo Royo argazkilaria tolosarra-ren ardurapean Argazkigin-tza II- Sakonketa tailerra an-tolatu da. Lantegi honetan, besteak beste, argazkigintza digitala landuko da. Ikasta-roa maiatzaren 3an hasi eta ekainaren 14ra bitarte gau-zatuko da honako egun eta ordutegietan: maiatzetik ekainera, astearte, asteazken eta ostiralean, 18:30etik 21:00etara. Ikastaroaren pre-zioa 90,35 euro izanik, izena eman nahi dutenek, astear-te baimo lehen kultur etxean edo 943 67 03 99 telefonora deituz egin dezakete.

ALEGIA ▶

Gaur hasiko da Xantoxen omenez eginiko txapelketa

Gaur jarriko da abian Xanto-xen omenezko futbol txapel-keta. Norgehiagokak larun-bat arratsaldeetan jokatu-ko dira, eskolako futbito zelai berrian. Guztira 9 talde aur-keztu dira txapelketan. Gaur 15:00etan Uau Roberto Txur-txilen aurka, 16:00etan Ko-kox Klan Aston Bilarren aur-ka, 17:00etan L San Mielen aurka eta 18:00etan Budwei-ser Etxale Kuyonsen aurka ariko dira.

GAZTELU ▶

Traste zaharrak bilduko dira astelehena arte

Udaletxea traste zaharren bilketa (auto eta traktore za-harrak, telebistak, hozkai-luak, eta batez ere burnizko traste zaharrak...) ari da egi-ten, eta astelehena bitarte izango da trasteak plazan ko-katutako kontainerretera bota-zeko aukera. Burnizkoa ez dena kontainer ondoan utzi beharko da.

iragarki laburrak ▶

Laguntzaile administratiboak.

Leku libreak: Hernani, Usurbil, Beasain, Altzo, Bergara, Soralueze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informatu: 943 43 41 27.

Haur Hezkuntza. Gaztelaroko 106 leku eta euskarako 52. Doako

informazioa: 943 43 41 27.

Fisioterapeutak. Laboratorioa, argi-izpi teknikoak, erizain laguntzailea. Hurrena sartzeko: osasunbidea, Informatu: 943 43 41 27.

Sukaldeko laguntzaileak,

sukaldariak, tabernariak. Leku libreak: ikastetxeak, erresidentziak, Eusko Jaurlaritza. Informatu: 943 43 41 27.

Peoiak. Igeltseroak, soldadoreak, mantenimendua. Leku libreak: Hernani, Arrasate, Arama, Errenteria,

Antzuola, Zerain, Mendaro, Villabona. Informatu: 943 43 41 27.

Gidariak. Hurrena sartzeko: udaletxeak, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia. Doako informazioa. Informatu: 943 43 41 27.

Irakasleak. 465 leku libre. Hurrengo

deialdiak. Informazioa doan.

Informatu: 943 43 41 27.

Udaltzainak. 25 leku libre udalekxetarako: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Irun, Arrasate. Informazioa doan. 943 43 41 27.



Seme-alaben irakurzaletasuna bizteko

IBARRA ▶ Nazioarteko Liburuaren Egunaren harira, Uzturpe ikastolak gurasoei zuzendutako hitzaldi bat antolatu zuen atzo. Bertan haurrengan irakurzaletasuna nola bultzatu daitekeen izan zuten hizpide eta aztertu ziren puntuaren artean irakurzaletasunaren garrantzia edo haurren jarrerari buruzko orientazioa izan ziren. Juan Karlos Alonso psikologoa izan zen hizlari, gaiaren garrantzia zela eta, ikastolaraino hurbildu ziren gurasoen aurrean. NOELIA LATABURU



Martzillatik etorritako haurrak, Erletako bisitari

LEITZA ▶ Atzo Leitzako atariak aparteko ume-marmariz bete ziren, izan ere Erleta eskolako 3. mailako ikasleengana, Martzillatik gaztetxo endana etorriak izaki, herriko plaza, alde zaharra eta beste erakusten ibili ziren, txokoetan barrena, hara eta honera, euskara eta gaztelania nahasian. Goiz partean gaztandegi bat ikusten izanak, eguna osatzeko Leitzara etorri ziren: Perurenatarren etxea ikusi eta Oinatz Bengoetxea pilotaria pilotalekura ekarrazazita, berarekin ere egonak ziren. JAIONE ASTIBIA

LEITZA ▶ KULTURA

Euskarazko filmen azken saioa bihar

'Txoritxoak' filma aukeratu dute, haur eta gaztetxoek zine saioak bukatzeko

JAIONE ASTIBIA

Bihar igandea, 17:00etan, *Txoritxoak* marrazki bizidunezko filma proiektatuko du Denok Bat guraso elkarteak, haur eta gaztetxoentzat bideratutako zine emanaldien zikloa bukatzeko.

Guraso elkarteak, Udalararen diru laguntzarekin, adierazi izan dutenez, negu osoan zehar, hilabeteko azken igandean eskaini dituzte, batzutan filmak, bestetan marrazki bizidunak, txandatu; baina guztiak euskarazko proiektioak izan dira. Horrela, eguna luzatu eta giroa epeldu duelarik, ume eta gaztetxoek atarian egotea ere gustuko izanik, emanaldi hauek bukatutzat joko dituzte biharko saioarekin.

Horrela, bihar Jannik Hasstrup-ek zuzendutako marrazki bizidunezko filma izanen da ikusgai. 68 minutuko iraupena du eta Oliver izeneko txori tiki



Txoritxoak filma. J. ASTIBIA

baten istorio zirraragarria du gai: Oliver txoritxo, etxe-txori arrunt batek katu baten atzaparretatik libratu eta berak hazi eta hezi du. Eta txoritxo honek, beti marmarika dabilen Walter hontza, Frederik eta Ingolf xagutxoak ditu lagun. Hauek Fagin hegazti harrapariari aurre egiten lagunduko die.

LEITZA ▶ UDALA

Kontu-hartzaile eta idazkari postuak, finko

Horretarako, bi lanpostuak lehiaketara ateratzeko erabakia hartu berri du Udalak

J. ASTIBIA

Leitzako Udaleko kontu-hartzaile eta udal-idazkari lanpostuak behin behineko egokieran zeudela eta (kontu-hartzaile kontratatu berria da eta idazkari titularrak, berriz, uko egin dio lanpostuari), orain, otsailaren 11an argitaratutako Foru Agindu batez baliatuz, lanpostu horiek «behin betiko betetzeko helburuz, postu horiek lehiaketan sartzea» erabaki berri du Udalak, azkena egin zuten

udal-batzarrean hartutako akordioz.

Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuak, bi moeta horietako lanpostu hutsak betetzeko prozedura ireki zuen, eta baita horiek behin betiko betetzeko prozeduran, udal bakoitzean kontuan hartuko diren merezimenduak erabakitzea ere. Horrela, Leitzako Udaleko bi lanpostu hauek betetzeko, besteak beste, «euskara jakitea nahitanahiezkua» dela ezarrita dago.

ARAMBURU
Salgai (Tolosa), Garaje itxia Plaza Zaharran.
Salgai (Tolosa), Pisua igogailuarekin Larramendi kalean, 112 m². Berritua.
Salgai (Tolosa), Pisua handia Gorosabel 40ean, Garajea aukeran.
Salgai (Tolosa), Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m².
Alokatzeko (Amezketak), 3 logelako pisua, Altzari eta garajearekin.
Alokatzeko (Alegia), 3 logelako pisua Altzariarekin.
Alokatzeko (Tolosa), Lokal komertziala Erremontari kalean.
Alokatzeko (Tolosa), Garajea Pedro de Tolosa kalean eta Araba Etorbidean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK
Jogurta
Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.
Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Amarozen dispen.: 67 26 37
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxis: 67 04 20

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04
▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
▶ Tipi itapa ald.: 948 631888
▶ Txolarre irrati: 943 69 80 38
▶ Karrape irrati: 948 61 09 14

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Ugarte. Euskal Herria 46 (Ibarra). 943 673 274
Erbiti. Lizarraga 7 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_publici@tolosaldeko hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info
Anoetaidea. 687 41 00 22
anoetaidea@tolosaldeko hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
ibarraldea@tolosaldeko hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko hitza.info
Leitzaldea. 687 41 01 18.
leitzaldea@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Igeltseroa. Mutil bat behar da, igeltsertzikako ofiziala, 2.
mailakoa. Deitu 615 74 86 61.

ALOKAIRUAN

Hondarribia. Udarako etxea alokairuan, familientzako egokia.
670 97 73 11.



Tel.: 943 67 10 26
mug. 670 827 278
Euskal-Herria, 38
IBARRA